

KANALAK

- Produktua bezeroengan helarazi

Gure proiektua bi kanal desberdinetan banatuko genuke: bata komunikazio kanala, bezeroekin eta lokalen jabeekin harremanetan egongo ginelako denbora guztian eta bestea salmenta kanala, lokalen alokairua gure aplikazioan salduko genukeelako.

Komunikazio kanala

Gure kanalik nagusia hau izango litzateke, gure bezeroak gurekin era batean komunikatu behar direlako lokalen bat alokatu nahi badute. Horregatik gure aplikazioan edozein galdera egin ahal digute eta horren bidez guk beraietzako egokiena den lokala bilatuko genuke beraien lana errazteko.

Baita ere, lokalen jabeekin kontaktuan egongo ginateke denbora pasa ahala, edozein arazo, aldaketa edo abisu esan, azaldu edo eman nahi badizkigute edozein momentutan haiekin hitz egiteko eskuragarri egoteko.

Salmenta kanala

Kanal hau gure proiektuan ere garrantzitsua da lokalak alokatzen ez baditugulako lokalen jabeak beste enpresa batengana joango zirelako haien lokala han salmentan jartzeko. Beraz, oso ondo erabaki behar dugu zein lokal hartu gure aplikazioan jartzeko, ahalik eta arinen saldu/alokatu daitezen gure hornitzaileak pozik egon daitezen.

